

# Txotxo barrokoak libre




UXUE APAOLAZA LARREA

**Z**uk berrogeita bi urte dituzu? Ez du ematen"; "Ez, zu ez, zuk gazteagoa ematen duzu"; "lasai, ez duzu ama ematen"; "gehienez hogeitamapiku, berrogei ez duzu ematen"... eta ez daramat ondo komentario segida hori. Zerbait txarretik libratzen naute, hainbeste kosta izan zaizkidan nire urtetxoez. Erridikulutik libratu nahi naute: egin dezakezu parranda oraindik horrela jantzita. Ez dakite, gazte horiek, gaztetasuna gainetik kentzea zein dibertigarria izan daitekeen: erridikulua duintasuna baino adrenalinikoagoa da. Eta nire herriko pintada batez gogoratu naiz.

Nire herriko erdiguneko kiosko zahartu bat berritu dute. Kiosko horrek maiz janzten ditu herritarren hitzak, adierazpenak. Laranja zoragarri batez pintatu dute orain, eta Joxepa Zubeldia hernaniar bertsolariari eskaini zaio: haren hitzak daude orain zutabe eta hormetan. Margo berraren azpian geratu da nik gogoan dudana pintada: "Txotxo barrokoak libre!".

"Zer da barrokoa kasu horretan?" hasi ginen filosofatzen. Barrokoa da konplikatua: adinean aurrera konplexuagoak gara, zailagoak, ez hain hogei urtekoak. Barrokoa da barrokoa: ez da txotxo minimalista depilatu bat. Bihurguneak ditu, orbainak ditu, ezpaineak dantza egiten dute beren kabuz, argi-ilunak ile kizkurren artetik... Nire txotxoak 42 urte ditu, bihurguneak eta jakintzak, eta ez ditu gutxiago izan nahi. "Txotxo barrokoak libre". ●



## Literatura

Igela argitaletxeak gelditzea erabaki du, arrazoi ekonomikoak medio. Argitaletxeak 34 urteko ibilbidea osatu du. Enpresaren jabeek hilaren 10ean zabalduetako oharrean adierazi dute "bukatu" dela: "Etxe ttipi berriak eraiki beharko dira, beraz".

## Zentsura

Iruñeko Herriko Tabernak bertan behera utzi behar izan du Sanferminetarako antolatutako egitarau kultural guztia. Gauzaren duen ekimen bakoitzeko 6.000 eta 60.000 euro arteko isun zigorrekin mehatxatu baitu Udaltzaingoa.

## Palestina

Zisjordanian azken 20 urteetako eraso militarrik handiena egin du Israelgo Armadak, airez eta lurrez, Jeningo errefuxiatu kanpalekuan. Gutxienez hamar palestinar hil eta hamarnaka zauritu dituzte, Israelen arabera "talde terrorista baten" aurkako erasoan.